



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2020KO ABENDUAREN 29AN
GOIZEKO 10:00ETAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak: Lur Etxeberria Gurrutxaga eta Beñat Larrañaga Urdanpilleta.

Idazkaria: Olatz de Miguel Arnaiz.

Ez dira bertaratu: Joxe Mari Iribar Zapirain eta Itziar Basterrika Unanue.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2020/12/18.

Batzarkideek, 2020ko abenduaren 18ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- COVID-19AK ERAGINDAKO PANDEMIARI EUSTEKO HELBURUZ DEKRETATUTAKO ITXIERAREN ONDORIOZ JASANDAKO KALTEEI AURRE EGITEKO OSTALARITZA SEKTOREARI DIRUZ LAGUNTZEKO OINARRIAK ONARTZEA.

Esp.zk.: HE03/169

Ikusirik

Ostalaritza sektorea itxi beharrean aurkitu dela Eusko Jaurlaritzak azaroaren 6ean emandako 38/2020 dekretuaren ondorioz eta sektoreari laguntzeko azken neurri hauek direla eta sortutako egoeraren aurrean, Usurbilgo Udalak diru-laguntza lerro bat sortu du.

Udalaren diru-laguntza deialdi hau Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen bidez bideratu diren diru-laguntza lerroak osatzera dator.

Laguntza hauen helburua da Covid-19 pandemiak eta alarma egoerak Usurbilgo ostalaritza establezimendu eta jatetxeetan eragindako kaltea arintzera bideratutako laguntza-programa arautzea.

Larrialdi ekonomikoko egoera honetan Usurbilgo Udalaren lehentasuna da herriko ostalaritza sektoreari babesa eta laguntza ekonomikoa ematea. Hartutako neurrien ondorioz jarri da abian diru-laguntza hau, kaltetuak gertatu diren ostalari eta beste zerbitzu batzuen jarduera ekonomikoa berrabiarazten laguntzeko eta behar duten bultzada emateko

Eta kontuan harturik

1. Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen.



Usurbilgo Udala

2. Dirulaguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, Uztailaren 21ekoa.
3. Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Covid-19ak eragindako pandemiari eusteko helburuz dekretatutako itxieraren ondorioz jasandako kalteei aurre egiteko ostalaritza sektoreari diruz laguntzeko Oinarriak onartzea.

Bigarrena: Diru-laguntza aurrekontu-partida honen kargura joango da, 1.5000.480.241.00.06 2020 Covid 19 merkatariarentzat laguntza 40.000 €.

Hirugarrena: 2020-2022 epealdiko Diru-laguntzen plan estrategikoan sartzea.

Laugarrena: Oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Bostgarrena: Eskerak aurkezteko epea, 10 egun baliodunekoa izango da oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera

Seigarrena: Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 10:15etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.